

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

JUGUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea Jugu, Olano eta Zaitegi herrietan ehiza esparrua eratzeko

Jugu, Olano eta Zaitegiko Administrazio Batzarrek ehiza esparrua (matrikula: VI-10091) berritzea erabaki dute. Ehiza esparruaren titularra Juguko Administrazio Batzarra da, jabe taldearen ordezkaritzan.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehi-zari buruzkoak, 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun balioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Jugu, 2019ko ekainaren 20a

Lehendakaria

BELÉN URIARTE VEA-MURGUÍA